

*Orreagako euskal gudua
Burua gora, gaur aipa;
Lurperatsetik baitu zaindua
Gizon libroen Europa!*

Xabier Diarce, IRATZEDER

Orreaga Orbaizeta zeharkaldia

Historia eta natura urtzen direnean

JOSE LUIS OSTAIKOETXEA

Motxilak prestatzen ditugun bitartean



Abenduko goizalde baten hotzarekin batera iratzarri ginen zeharaldi luze samarra egiteko nahian. Orduko eguzki makalak behelainoa urtzen joian neurrian motxilak atontzen genituen; ogibitartekoak, urontziak etb, goizeko bederatziretzi t'erdire inguruan kolejiata atzean utzi genuela.

Atzeko aldetik ikusita, Orreagako etxeak egoera tamalgarrian agertzen zitzaizkigun; hormak makurrak, malatunez beterik, uralitazkoa zan teilatua txaplatez beteta... Halaz ere lekuak ederki gordetzen du gizaldi ta gizaldietan zehar hartutako xarma berezia, ez alperrik hemendik Santiagorantz milaka iragan dira erromesak XI mendetik aurrera. Mota guzietako jendea, Europako hizkuntza guzietako jendea alegia. Leku honetan, Orreagan, atsedena hartu ondoren, Santiagoren bidea hartzen zuten berriro. Frantzian zeuden lau erromes-bideetatik hiru, Istabat'en alboan bilduz, Luzaidetik Valcarlos igarotzen ziren Pirineoa zeharkatzeko.

Eraikuntzei dagokienean, garrantzi eta zahartasun haundiko monumentuez hornitua dago Orreaga. Erromesentzat egon zan eritegia 1132'an Ibañetatik orain dagoen lekura eramana izan zan Iruinako Santxo apaizpikuaren eskutik, Alonso Sanchez erregearen garaian. Monastegi eta eritetxetan bakarrik sosegua lortzen zuten erromesek; iruzurtzaile, apaiz faltso, txanpon-trukatzzaile eta lapurrenkandik urrun.

*Ni erroldari
eginiko
oroitharrarian
Ibañetan.*

*Santiago'ren
kapera (XIIIgn
mendea) Orreaga.*





Urkulutik jeisten.

Erromes asko pasatzen zirenez gero Orreagako ospea eta izena Europa guztian zehar zabaldu ziren; haugaitik uzkontza frango jaso zuen kolejiatak: Italian, Eskozian, Irlandan, Frantzian, Portugalen, Gaztelan, Andaluzian etb luze batetan ondasunak eta lurrak zituelarik. Kolejiata aurrean Santiago basiliza dago (XIII m.) eta «Sancti Spiritus» delako kapera alboan (XII m.) Orreagan hildako erromesen hilobia izan zana. Eleizak, gotiko tankerakoa, XIV mendeko Birjina irudia du. Areto Kapitularrean (XII m.), Santxo VII «Azkarra»ren errautseak daude baita bere emaztea izan zan Clemencia'renak ere, erregeen hilobian.

Guzti hau atzean lagata ba, errepidetik gora Ibañeta mendateraino iritsi ginen. Handik goitik Luzaideko harana osoa ikusten zan, oso oskarbia bait zan. «San Salvador» delako ermita ikus dezakegu leku honetan. Iragarpen batek errepideaz Ortzainsurieta-raino (1.569 m.) dagoen distantzia esaten digu; zazpi km. Ahalik eta errepidetik asagoen igoten saiatzen gara, ez dago inungo trafikorik, ez prefosta! baina basoa eta zeharbidetxoak errepideak eta pistak baino atseginagoak dira. Lepoederrerraino heltzen gara (1.445 m. altueraz) eta Ortzainsurieta-ko soslai haundiosa azaltzen zaigu. Napoleonen izeneko bidea hartzen dugu ezker aldean. Hor hemenka elur ondarrak ikusten ditugu uso zurien irudira. Urrun, uztondoa erretzen dute baseritarrek kezko zutabe liraina eta zuria igoarezten, ortzian ailenatzen doala. Astobizkar (1.401 m.) ezkerrean ere uzten dugu.

Orreagako gudua

Astobizkarrean bertan 778'ko urtean (Abuztuak 15'an hain zuzen ere) Karlaundiak euskaldun eta mauruen eskutik, jasan zuela hondamenik garrantzitsuena pentsatzen da. Hondamen hau Europa osoan, Erdi Aroan zehar, ospetsua bihurtuko zan «La Chanson de Roland»en bitartez.

Gatazka honen garrantziaz asko hitz egin da. Badirudi Karlaundirentzat galmena min-

kotsa izan zala; izanez ere hondamenaren minak luzaroz dirau Karlaundirengan. «Sarraskiaren gogorapenak erregearen bihotzea ilundu egin zuen» Karlaundiaren historialaria izan zan Eginardok «Annales Regii» delako liburuan dino; hori ogetabost urte sarraskiaren ondotik! Moret historialari nafartarrak dinoenez «Min horren haundia ez da zauri txikiarena» gatazkaren benetazko garrantzia azpimarratzeko.

Urkulurantz

Bide ertzeetan pagoen tantai bilusiak agertzen zaizkigu; lurra ostoez estalia dago. Tarteka zolu lerrakorra dugu jelatua bait dago. Ia ez dago elurrik baina dagoen gitxia lekuri babestuenetan geratu eta jelatu da. Maiz ipurdikada itzelak ematen ditugu laprast egin ondotik. Eguzkia sentitzen badugu ere, kerizpetan diren elur ondarrak ez dira urtzen, ez da, behinik behin, desizotzen ere. Bide horretatik aurrera Iparraldera pasatzen garanaren susmoa daukat, baina ez dugu igartzen ere, inungo mugarririk ez dago eta.

Muino batetara ailegatu orduko, landa baten ertzean lupetza erabat jelatua aurkitzen dugu; eskerga denez gero, izotz limuririk irristatzen gutariko batzuk animatzen dira. Gorputza bultzatzeko nahian, lasterke-ta egin ondoren leunki eta ziztuan irristatzen dira izotz gainetik.

Ni ez naiz saiatzen ere; horren gazkabekoa naizenez lepohezurra apurtuko litzaidake gitxienez!

Aipatutako lekuraino oso erreza dugu bidea —izotza salbu— eta aurrekoa ez da ba, txarragorik izanen. Pizkat gehiago ibili ondotik ehiztarien bordatxoak agertzen zaizkigu; babesleku txikien moduan eraikiak daudelarik, batzu modu baldar baten, beste batzu barriz, zementuzko hormekin horni-

tuak. Haran zabal batetan —Iparraldeko ikuspen ezinobea eskeintzen diguna— kokaturik daude, Urkulu aurrean. Eskualde hori ezagutzen duen edonork jakin badaki ze hedatuak dauden ehiztarien babesleku txikiok.

Izan ere usoak migrazio garaian, lur epelagoen bila, hemendik igarotzen dira (saiatzen dira, behintzat) eta ehiztari astopitoek beren etxoletatik, haizeak eta hotzak ondo babes-turik, tirokatzen dituzte usoak —edo egan egiten duen edozein gauza—.

Bordatxook ehundaka ikus ditzakegu; kartutzez —eta batik bat— paperez lohiturik. Karabinazaleak oster, Natura-maitale kut-tunak ditugu (heuren esanetan, noski)!

Urkuluan

Askenez aurrez aurre Urkuluko soslai lirain bezain malkartsua agertzen zaigu: gailurra harritsu, ustezko dorre erromatarraren aztarnak buruntzi moduan dauzka. 1.442 metroko mendia da, azken tramoan nahikotxo malkartsua izanik; haatik arazorik gabe igon daiteke. Tontorrean jada, eguraldi bikaina denez, so egiten ditugu gure begi aurrean goititzen zaizkigun Pirineoko zorrotutako gailurrak, haien magaletan hedatzen diren pagodiek herenilezko mihise ubela ematen dutela. Bizkitartean, azken ostendutako gandua aienatzen da haranako zirkuluan.

Zuberoa aldean Pirineoei «bortuak» deitzen zaie, eta orduko eremuak ikustean oso apropos jarritako izena zelakoan nengoan. Izan ere, Abendu honetan mendietako tolesduren artean landak kolore makalakoak agertzen zaizkigu. Amaiketako Erroma ga-



raiko dorre gainean jesarrite egiten dugu paisai miresgarria kirikatzen dugun bitartean. Gailur harri artean behor batzu dabil-tza.

Gainean zeru ia garbia, kabien zain edo, zenbait hegazti sumatzen dugu; egakada borobilez zaintzen gaituela ematen du.

Mendebaldean Ori mendi (2.017 m.) He-goaldeko isurialdea erakutsiz, gainontzeko mendietatik ondo bakoitzua, altxatzen da; sapalda borobiltsua, soslai arraz ezagutua, elurtua, erabat zuria... maitagarria guretzat. Ori mendi ostean Belaguako erpin zorrotzek tinkatzen elkar, are atzeagoan beste hainbeste gandorrek egiten zuten langoxe. Gailur elurtuak, zuri zuriak, ortzi urdin pean, begiaurreko gainontzeko mendiak ere miraz egon ginen. Laharre, orbela, eta eremu lehorek inprimitutako margo nabarrak tindatua agertzen zitzaigun panorama osoa. Mendi asagoenak orban ubelen irudikoak ziren. Adartza (1.250 m.), Autza (1.306), Errozate (1.346), Okabe (1.456), Behorlegi (1.265) etb... paisai miresgarritasunaren lekuko ixilak dira. Halako ikuspegi ederraren aitzinan mila urtez aspertu barik bageundeke ere, jarraitu behar. Nornaitetik zirkun eragiten gaitue... betarik izango ez gendukela eta, egun osoa han ematea posible ez dela eta... Beraz martxan jarri berriro. Xirripa baten albotik jeitsi ginen haranarantz. Pista laster hartzen dugu otadi ala txilardi —ez dut gogorazten— unagarri batetik ibili ondorean.

Orbaizetako armen ola

Jarraian, Orbaizetako olara doan pista batetik abiatu ginen. Ginen goseak agudo ibil-

tzera bultzatzen gintuen. Itzala zan lekuan dena izoztua zegoan, miesa zuri moduan. Eguzkitan, barriz, txukatzen. Idoiak ere izozteko mintzaz estaliak; hasieran jela plakak oinarekin apurtzea entretenigarri suertzen zintzaigun arren, laster hori egiteaz aspertu ginen. Pista zeharkatzen zuen errekatxo batetara jakinminaz urbildu ginen; izan ere ur ertzean zeuden landareak arraz jelatua genituen, ostoa leizko zorroez jantziak, ezpata zorrotzak emanez. Pista horretatik ginoizala bide ertzean zaratxoak igarri genituen.

Hori gure sorpresa orein bat ikustean hantxa bartan bide erdian! Gutaz oharitu barik edo, sasi artean ziplo aienatu zan. Ez nekian nik oreinik zegoenik Irati Ohianean. Lagunek nik ikusitakoa behiren bat zela esaten bazidaten ere, ikusi nuenaz zihur nago —begi hertsideki baten bitartean izan arren—. Askenez Ola begi aurrean geukan.

Ondar bitxiekin egiten dugu topo hemen. Pagoez inguraturik, horma jauzita... eraikuntza eskerga baten aztarnen aurrean gaude; Orbaizetako Arma eta munizioen ola. Izan ere 1.786'tik 1.788'ra arte irauin zituen obrek aintzineko burdinola zegoan lekuan armen ola eraikitzeko. Hemen Amerika eta Espainarako munizioak egiten ziren garai hartako olarik inportantenetakoa izanik, 1.793'an hasitako «Konbenzioa» delako gudatean lehenengo gorabehera jasan zuela. 1.794'ko Apirilak 6'an mugatik bost mila gudari frantziarrak urbildu ziren Orbaizetako ola hartze-

ko nahian. Lehendabiziko destakamendu espainolak garaitu ondotik, olarantz abiatu ziren, baina Aezkoako biztanleek eta olako langileek aurre egin zieten frantsesei eta hauek ihes egin behar zuten. Halaz ere hila-bete batzu geroago, Morbot jenerala frantziarrak Orbaizetako ola eraso zuen berriro eta suntsitu egin zuen. Geroztik berrereikia izan zan baina berriro erre zan «Independen-tzi-Gudate» delako horretan. Baina 1.830'an berriz funtzionatzen du. Zumalakarregi jeneralak lehenengoko karlista gudan, inguratu eta konkistatu zuen 1.834'an. Hala ere karlistak laster uzten dute ola. Herrezkero normaltasun osoz jarraitzen du XIX'gn mendeko 70'gn hamarkada arte olako gainbehera hasten delarik zurezko errekinaren ordezkari motako ikatza erabiltzen hasten denean.

Orbaizetako ola 1.873'an itxiten da behin betiko; ordutik teilatuak eta hormak emeki emeki jausiko dira, eta Iratik pagoen indarrez leku honetara betiko pakea iritsiko da. Egun goroldioaz jantzitako horma eroriak ikustean oroitzapena baino ez zaigu jantzitako horma eroriak ikustean oroitzapena baino ez zaigu geratzen. Han bertan, olako etxeetako ostatuan alegia, otordua egin genuen eramaten genituen ogibitartekoekin, orduko gosea kontutan izanik oturuntza iruditu zitzaigularik. Jarraian kafesnetxoa, eta Nafarroan geundela derrigorezko patxarana, noski. Oso gustora geunden bazkal osteko solasaldian berogailu alboan, patxarana destatzen genuen bitartean, baina Abenduan —nahiz eta eguraldi ona— oso laster iluntzen du; beraz irten ginen. Zoria lagun gauak ez gintuen bidean harrapatuko bederen. Kerizpean ozkirria nagusi zan.

Orbaizetako olaren osoko ikuspegia.

Orreagarantz. Joana Albrit'en elea

Orreagara urbiltzen garala gorostia ugari-tzen da eta nunahi ikusten ditugu. Haietarik batzu igali gorriez hornituak daude —oso apropos ohiana apaitzeko Eguberri jaie-tan—; gorosti gizajoak txomingeroek zuen leku izkutuak balekizkite! Enborretik ez zintuzten moztuko berebileko maleteroan leku-rik ez dutelako, edo beren etxeetako aretoak txiki-egi suertatzen zaielako, osterantzean desagertuko zinatekete!

Mendian eta Pirineoetan batik bat, eguna hastapenetik amaiera arte sentitzen da eguzkiarekin bat eginda. Eguna honela Eguzkiaren semea bihurtzen da; beroa sentitzen dugu oskarbian gogor ematen duenean, eta ilunabarreko itzalen bildurra hegian izkutatzen danean. Hirian oster, eguzkiaren indarririk ia ez dugu antzematen; argirik ez badago interruptoreari luzatzen diogu atzamarra, hotza badago berogailua pizten dugu...

Orduko ilunabarrekin batera Joana Albrit erreginaren kontuzaharra burura etorri zitzaidan, izan ere Irati Ohianean haizerautsia danean Nafarroako erregina izan zan Joana Albrit'en inguma erratua eta izugarria, Aezkoa eta Saraituko biztanleek go-goan dute; mendez mende kondenaturik, katolikuen aurka burrukatzeagaitik eta bere Behe Nafarroako menpekoei indarraren bitartez fede kalbinozalea inposatzen saia-





Orbaizetako ola. Legarza ibaiaren gaineko arkuak.

tzeagaitik. Eta gau haizetsuetan, jarraitzen du kontuzaharrak, Joana Albrit'en hezurdu-ra koroadunak basoko arbolen kukulak ikutzen ditu hegalada arinaz, izu itzela sortarazten mendiko jende artean.

Ilunabarreko argi mehez Orreagako kolejiata antzeman genuen, bideko zigi-zagak tarteka ezabatzen bazigun ere.

Eguzkia Ekialdean zeharo sartu dan orduko, heltzen gara. Kolejiata inoiz baino harroragoa iruditzen zaigu. Afaldu, ondo afaldu ondoren mendizaleok sutondoan jesarriko gara eguneko auto-mautuez mintzatzeko, zitzek zirtakatzen duten artean logura emeki harrapatzen gaitularik.

Orbaizetako olako labe ehortzia.



RESUMEN

La travesía de Orreaga (Roncesvalles) a la Fábrica de Orbaizta: un paseo por la historia y la naturaleza

EL sol se asoma entre los jirones de niebla que se agarran a la Real Colegiata en una fría mañana de invierno, cuando comienza este hermoso recorrido alrededor de la cima de Ortzanzurieta.

Cuesta salir de la historia y la leyenda para, abandonando este lugar de encuentro de soldados y peregrinos, subir al puerto de Ibañeta y luego ir hacia el Este, siguiendo la divisoria de aguas y retrocediendo en la historia para, a través de la calzada romana, acercarnos a las ruinas del castro de Urkulu.

Mucho del Pirineo al alcance de nuestra vista y un mullido césped pisado por brujas y contrabandistas para llegarnos a los restos de la Fábrica de Orbaizta y luego a través del barranco Itolaz y el collado Nabala, por ancho camino bajo las hayas, cerrar el circuito en Orreaga.

